

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Amerikako ziria piztuta

MEXIKO HIRIA, 1808KO EKAINAREN 9A. Jose de Iturrigaray Mexikoko erregeordeak *La Gaceta de Madrid* egunkaria jaso eta titular kez-kagarria irakurri zuen: maiatzaren 2an frantziar armadak herritarren errebolta krudelki itzali zuen Espainiako hiriburuan. Handik aurrera altxamenduaren oihartzuna abiada bizian hedatu zen; espainiarren eta frantziarren arteko Independentzia Gerra hastear zen.

Eztandaren uhinak berehala iritsi ziren itsasoz bestaldera, gaur egungo Mexikoko kostaldera. Borboien abdikazioak buru politikorik gabe utzi zuen Inperioa. Eta penintsulan bezala, Espainia Berriko Erregeorderrian ere gobernu berria ezartzeko eskubidea zuten; preso zegoen erregeari obeditzen jarraitzeak ez zuen zentzurik. Iturrigaray Espainiaren loturak eteteke prest agertu zen. Kreol talde batek subiranotasunaren aldeko mugimendua abiatu zuen, baina gaxkupinek –Iberiar penintsulan jaiotakoen mespretxuzko izena– ez zituzten koroaren pribilegioak galdu nahi eta 1808ko irailaren 15ean Jauregi Nazionalari eraso eta erregeordea atxilotu zuten, erregeari iruzur egitea leporatuz. Hego Amerikako historiako lehen estatu kolpetzat joenezake. Iturrigaray epaitu, baina errugabetzat jo zuten.

Independentzia saiakerak porrot egin zuen, baina erreboltaaren ateak zabaldu egin ziren. Kreolek mestizoen eta indiarren laguntza bildu zuten. Horrenbestez, 1808an bertan Queretaroko konspirazioa jaio zen, besteak beste Miguel Hidalgo apaiz kreolak bultzatuta.

Iturrigarayk kargua behartuta utzi eta bi urtera, 1810eko irailaren 15ean, Hidalgo



Goian, Miguel Hidalgo apaizaren omenezko estatua. Hidalgo izan zen *Doloresko aldarria* eta, beraz, Mexikoko independentziaren bidea hastapenetan bultzatu zuena. Lerro hauen ezkerrean, Jose de Iturrigaray erregeordea eta familia.

apaizak Dolores herrixkako eliztarrak matxinadara deitu zituen. Eta *Doloresko aldarria*kin hasi zen 1821an Mexikori independentzia emango zion gerra irekia.

Iraultzak domino efektua izan zuen; gaurko Bolivia, Ekuador, Venezuela eta Kolonia altxa ziren lehenik, eta Argentina, Txile, Uruguay eta Paraguay gero. Bi mende geroago, bakoitza bere independentziaren bigarren mendeurrenaren ospakizunak prestatzen hasi da. ■

ARRASTOAK



Dyedefraren piramidearen aztarnak. Keopsena baino zazpi metro altuagoa zen.

GIZAKO LAUGARREN PIRAMIDEA

ia ezezaguna da. Dyedefra faraoiak eraikiarazi zuen, Keops aitaren lorpenak gainditzeko asmoz. Hortaz, Keopseko piramideak baino 7,62 metro gehiago neurtzen zituen. 5.000 urtetan hareak erdi estalita egon da eta arrastoak ez zituzten Gizako piramideekin lotzen, handik zortzi kilometrora eraiki baitzuten.

Baina azken hamabi urtetan, Zahi Hawass doktorea buru duen taldea piramidean indusketa lanak egiten aritu da eta euren ikerketaren emaitzak *Piramide galdua* izenburuko bi orduko sail dokumentalean bildu dituzte. Dokumentalean, besteak beste, lau piramideak pasabide amaigabeez lotuta zeudela azaltzen da.